

Itxaro Borda

Word's world

K

risiak bazterrak larrutzen ditu. Ez du alabaina mundua kudeatzen dutenen multzoa ukitzen, egunero bizitzen dugun ekonomia erreala baino. Londresen hogei estatu puxanteenak dirua beraien alde metatzeko bildu zirela oroitzen gara eta denak pozik agertu zitzaizkigun, haur kapriziotsuarena egiten zuen Nicolas Sarkozy barne. Oro har, Londresen eta Estrasburgon asteburu berdineko NATOren bilkuran ez zen politika askorik aipatu, Michelle Obama eta Carla Bruniren arropak zein ibilmoldeak aldiz bai, kazetariei funtsezko arazoetaz aritzea subliminalki debekatua bailitzaien.

Berlineko hormaren erorketaren ondok diskurtso neoliberalak jende harremenen zulotxoak oro emokatu zituen, amodioa bera kutsatzeraino. Guztiak nagusi txikiak bagina bezala mintzo ginen larderiatzekoak ziren gure auzoetaz, lankideetat, maitaleetat. Plan sozialak eta deslektutzeak sentimenduen alorrean erabiltzen genituen haize parpailen antzera eta uesteko irabazleak ginen, ideiaz ezkerrekoak suertatu arren. Egitura ekonomiko bakunaren araberako pentsamendu bakuna hedatu zen eta gorroto olde komunean laidozta genitzakeen terrorismoa, feminismoa, ekologia edo marxismoa, ahoan bilorik gabe eta zilegitasun ideologiko osoz. Krisiaren garatzearekin diskurtso ments gabiltzala konturatzen gara. Dagoeneko buklean entzuten dugu Kraftwerk taldearen *radioactivity* albuma sosegatuko gaituela esperoan.

Gaztigu mehatxuengatik, langileek oinetan xinaurriak kilikari nabaritzen dituztela, buruzagiak bahitzen dituztenean, karrika izkinetan eske zinpurten direnean, herritarren moralala maldan beheara doanean kontsumitzea ahulduz, kideen solasa auhen elkor eta luzea delarik, oharitzen gara boteretsuen mintzaldiek jada krisiaren larritasuna eufemizatzen eta parabola ebanjelikoak baliatzen dituztela bake sozialaren mantentzeko, bake soziala baita lur honen parte aberatsenetan, dirua sakelaritzen jarraitzeko baldintza bakarra. Apokalipsia iragarria zutela dioten zenbait aditzen ditugu, baina gehienek, FMIko arduradunak kasu, sei hilabeteren epean



GAIZKA IROZ

zopotik sano jalgiko gabela segurtatzen digute geroaz jakintsu bailiran.

Mass mediak zabaltzen duten mezuak kezkatzekoa badu: krisia ez omen da benetakoa. Subjektiboa da. Sustrai zientifiko izpirik ez duen psikosia orokor bat izan daitekeela frogatzen digute psikologo inguraturik pantailaratzen diren ministro eta berezilariek. Ez dute dramatizatu nahi eta lantegi bat hersten denean *défaillance* hitza ahoskatzen dute *faillite* edo *banqueroute* eleen orde. Prekarietatea eta xomajearen espektroa haragitzen doakien kasko zokoetan zalantza txertatzea lortzen dute, nolabait eroak direlako irudipena, arrazoirik ez duen beldur zozoak daramatzala hots. Krisiaren zama jasaten dutenek gogoetaren hutsalaz hobendun sentitu behar dute, barrikadak altxa eta suteak pitz ez ditzaten egoera horren zinezko errudunen atarietan.

Marie France Hirigoyen eta Christophe Dejours azterleek duela hamarkada bat finkatu *harcellement moral* edo zirika moralala

Ez dute dramatizatu nahi eta lantegi bat hersten denean *défaillance* hitza ahoskatzen dute *faillite* edo *banqueroute* eleen orde.

Prekarietatea eta xomajearen espektroa haragitzen doakien kasko zokoetan zalantza txertatzea lortzen dute, nolabait eroak direlako irudipena, arrazoirik ez duen beldur zozoak daramatzala hots

ren ezaugarriek kolektiboki ere operatzen dute, ez soilik lantegien eta sukaldeen intimitatean. Jendailaren suntsiketa masiboaren helburuetarik bat norberak desiratu ez duen errealtate eman batekiko duda eta kulpabilitatea haztean datza. Politikariek, kazetariak meneko dauzkatela, komunikazio baliabide indartsuak jarriak dituzte horretarako eta Baionako xingar feriako euskaldun andere delizios batek balizko erosleak moltsa uzkur duela erran dezake erdi kexu, krisiaren eragina ukatuz. ■